

VI. TITULUA: BIZIKIDETZA ARAUDIA

1. GELA

1. Puntualtasuna derrigorrezkoa da, bai ikasle bai irakasleengan.
2. Ikasleak gelan egonen dira irakaslea iritsi orduko.
3. Ikasgai aldaketan ikasleak ondoren datorren irakasgaiko materiala prest eduki behar du.
4. Irakaslearen zein ikaskideen hitz egiteko txanda errespetatu behar da.
5. Ezin da leihora irten, ezta eserlekutik altxa baimenik gabe.
6. Paper erabilia, plastikozko ontziak eta aluminioa birziklatu eginen dira, eta zaborrontziak erabiliko dira.
7. Eguneko azken saioaren ostean, ikasleek eserlekuak mahai gainera igoko dituzte, eta gela garbi eta txukun utziko dute.
8. Ikasleak altzarien kontserbazio eta garbiketaren arduradunak izanen dira.
9. Gelaz aldatzen denean, saiatu behar dugu aldaketa hau isiltasunean egiten, beste geletako giroa ez zapuztearren.

(Ikus 1. ANEXO A HH eta LH GELA BARNEKO ARAUAK)

2. IKASTETXEA

- Behar den materiala ekarri.
- Eskolara sartzekoan eta irteterakoan modu egokian agurtu.
- Gelan sartzekoan eta irteterakoan ordena mantendu pasabideetan.
- Pasabideetan oihukatu eta korrika egin gabe ibili.
- Ez erabili eskailerak, pasabideak eta komunak jolasteko.
- Elkarrekiko errespetua mantendu, bai lagunekin, zein kide, irakasle eta zaintzaileekin. Arazoak sortzen badira, borrokan hasi aurretik, irakasleari edo zaintzaileari esango zaio.
- Patioan besteen espazioak, jolasak, nahiak... errespetatu.
- Zakarontziak erabili eta eskola txukun mantendu.
- Erabiltzen diren jokoak modu egokian tratatu eta behar den tokian gorde.
- Etxetik ezin da jostailurik ekarri. Baloiak, sokak, pin-pon palak eta bestelakoak eskolan eskatu.
- Txirrinak jotzen duenean, ez lehenago eta ez beranduago, gelan sartuko dira.

- Debehatuta gelditzen da honako gailuen erabilpena: mobila, bideokontsolak, MP3, MP4 eta PDA, edo merkatuan agertu ahal den edozein aparailu elektronikoa. Ikasleek egin behar dituzten telefono deiak Zuzendaritzan dagoen telefonotik eginen dira.
 1. Ikasle batek hauetako bat erabiltzen harrapatua bada, kendu eginen zaio, ikasleak itzali ondoren, eta Ikasketa-Buruari emanen zaio. Astearen hondarrean, itzuliko zaio.
 2. Ikasleek ekartzen badute goian aipatutakoak, motxilan eta itzalita izan beharko dute.

2. ZERBITZU OSAGARRIAK

3.1 GARRAIOA

Joan-errietan zehar bete behar diren portaera arauak, enpresa adjudikaziodunaren ardura dira.

Autobusak 5 minutuko gehienezko aurrerapenarekin iritsiko dira ikastetxera, bai goizeko lehen saiorako baita ikasleak azken saioaren ondoren jasotzeko ere.

Ikastetxeak jakitera emanen dio ikasleriari autobuseko arauak, garraioaren hobekuntzan laguntzeko asmoz.

Arauak:

- Zaintzaileak (edo gidariak) finkatuko du herri bakoitzetik pasatzen den ordutegia eta ikasle bakoitza zein eserlekutan egon behar den eserita bidai osoan zehar.
- Ikasleek ahots tonu arrunt batean hitz eginen dute, zalapartak eta garrasiak saihestuz.
- Ikasleek ezin dute zutik jarri dagokion geltokira iritsi baino lehen.
- Zaintzailea (edo gidaria) da autobusaren zein ikasleen arduradun osoa, eta hauek beti kontu egin beharko diote.

3.2 JANTOKIA

3.2.1: Eskola jantokia:

1. Jantokira sartu aurretik, komunetik pasa eta eskuak garbituko dituzte.
2. Ikasleak puntualki eta ordenan sartuko dira jantokira, korrika egin gabe, bultzatu edo oihu egin gabe.
3. Sartzean mahai-zapia (serbiletan) hartu eta dagozkien eserlekutan eseriko dira. Denak eserita daudenean banatuko da bazkaria.
4. Mahai bakoitzeko arduradunek, txandaka, bazkaria banatuko dute modu parekatu batean.
5. Zerbitzatzen dutenek ilea bilduta eramatea derrigorrezkoa izango da ardura hau betetzen duten bitartean.
6. Ikasleek jaki bakoitzeko koilarakada bat dastatu beharko dute gutxienez eta goarnizioa banandurik eskainiko zaie, beraiek erabaki dezaten hartu edo ez.
7. Ikasle batek, gutxienezko koilarakada jaten ez baldin badu, jantokian itxaron beharko du lehen hezkuntzako zein haur hezkuntzako ikasle guztiak akitu arte. Azkenak akitzean, harekin batera patiora aterako da.

8. Ikasle guztiek jateko tresnak erabiliko dituzte, janaria eskuekin hartu gabe.
9. Aldi berean jantokiko materiala errespetuz erabiliko da: platerak, edalontziak, mahai tresnak eta abar.
10. Edozein beharren aurrean zein janaria, ogia edo ura akitzen direnean, ikasleak eskua altxatu eta zerbitzatzen ari den ikasleari edota monitorean modu onean (oihukatu gabe) behar duena eskatuko dio.
11. Ikasleak ez dira janariarekin jolastuko.
12. Bazkaria akitzerakoan tresnak, platerak eta edalontziak mahai erdian pilaturik utziko dira, zaborrak bertze plater batean utziz. Mahaia, zapiarekin garbituko da, txandak errespetatuz eta lurrera ezer botaz, garbitzeko arduradunei lana erraztuz.
13. Irteera ordenan zein zaintzaileek erraten dutenean egingen da. Aulkiak ongi utziko dira, arrastaka eraman gabe eta mahai-zapiak kutxatilategian utziz.
14. Ezingo da jantokitik janaria atera.
15. Hortzak, jantoki sarreran dagoen konketan garbitu beharko dira.
16. Jantokian, momentu oro, oihurik egin gabe hitz egingen da.
17. Monitore-ikasle arteko harremanak errespetuzkoak izanen dira.
18. Aldi berean, ikasleen arteko harremanak errespetuzkoak izanen dira; jarrera bortitzak ekidinez edota elkarri iraindu gabe...
19. Ikasleek monitorean esanei kasu egin beharko diete, baita bete ere.
20. Garraiatuak ez diren ikasleatariko batek, jantokia egun puntualetan erabiltzen badu, dagoen arautegia onartu beharko du eta arduradunek jartzen dioten tokia onartu beharko du. Hala ere, bere adineko ikasleen inguruan jartzeko saiakerak egingo dira.
21. Zerbait dastatzen ez denean, monitorea asteroko fitxan (jantokian egongo dena) dastatu ez den platera idatzita utziko du eta aste amaieran jantokiko arduradunak fitxa jaso eta etxera beharrezko oharrak bidaliko ditu (ikasleak zer jan ez duen adierazten). Ohar hauek jantokiko arduradunek ikasleei emango dizkiete. Aldi berean tutoreei jakinaraziko zaie. Ikasleak hurrengo asterako bueltan ekarri beharko du oharra sinatua eta tutoreari eman.

3.2.2: Eskola jantokiko jolas-ordua:

- 1.- Jantokiko errekreio garaian debekaturik dago geletara igotzea.
- 2.- Errekroetan, euria egiten duen egunetan, horretarako egokituak dauden guneak (energia txokoa, jolas gela eta abar) erabiliko dira eta tinbrea jotzen duenean gune hauek bildurik utziko dira.
- 3.- Ikasleak une oro jokorako egokituta dauden eremuetan (patioan, pistan eta abar) egongo dira, eskola eremutik atera gabe. Irteeraren bat beharrezkoa denean (medikura adibidez), familiak abisua alde zuzenetik pasatu beharko du.
- 4.- Ikasleek jan ordua baino lehen aterako dute ikasgelatik jantokiko jolas orduan erabiltzeko materiala.
- 5.- Ikasleak ezin dira leku arriskutsuetara igo: zuhaitzak, hesiak, leihoak eta abar.

6.- Ikasleak adeitsuak izango dira besteekin: lagunak, kideak, monitoreak eta abar. Arazoak sortzen badira, borrokan hasi aurretik monitoreari errango diote.

7.- Komunak eskuak garbitzeko zein gure beharrak egiteko erabiliko dira. Ez dira jokorako edo eztabaidarako lekuak izango. Modu honetan, ikasleak, monitoreari baimena eskatu ondoren joango dira.

8.- Txirrina jotzean ikasleak eskolara sartuko dira, ordenan, bultzaka aritu gabe eta oihu egin gabe.

9.- Ikasleek monitoreen esanei kasu egin beharko diete, baita bete ere.

10.- Garraiatuak ez diren ikasleetariko batek, jantokia egun puntualetan erabiltzen badu, eskola jantokiko jolas-orduko arautegia onartu beharko du,

3.3 Falten tipifikazioa eta haien aurreko prozedura

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK:

- Pertsona, tresna eta janariarekiko errespetua ez izatea.
- Inolako arrazoirik gabe berandu iritsi edota sartzea.
- Mahai zapiekin jolasean aritzea.
- Ogia eta janaria botatzea.
- Bazkaltzeko tresnak modu desegokian erabiltzea.
- Bertzeekiko (kideekiko zein monitoreekiko) jarrera ez atseginak izatea.
- Oihu egin edo baimenik gabe altxatzea.
- Monitoreen baimenik gabe jantokitik ateratzea.
- Janaria, jantokitik kanpo ateratzea.
- Besteen iritzia eta esanekoa ez errespetatzea.
- Besteengana modu desegokian zuzentzea.
- Jolas orduko materiala behar ez den moduan erabiltzea.

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKABIDEAK:

- Mintzeko intentzioarekin monitoreei zein ikaskideei iseka egitea, iraintzea, izen-gaitzak erabiltzea, keinu itsusiak egitea edota errespetu falta larriak izatea (prepotentziarekin erantzutea, besteen espazioa ez errespetatzea...).
- Monitore nahiz ikaskideei iraintzea (alderdi sexista, arrazakeriazkoa, xenofoboa edota dituzten ezaugarri pertsonalen aurkakoak badira).

- Eraso fisikoak; kolpeak, iletik tiratzea, bultzadak, zartakoak...
- Falta arinak behin eta berriro egitea. Hiru falta arin, larri bat bihurtuko du.

EMAN BEHARREKO PAUSUAK:

Jokaera arinaren lekukoa izan den monitoreak (jantokian edota jantokiko patioan) abisua pasako/helaraziko dio jantokiko arduradunari egunean bertan. Jantokiko arduradunak oharra bete eta ikasleari emanen dio ahal bezain azkarren. Ikasleak gurasoei emanen die hauek sina dezaten. Behin sinatu ondoren, ikasleak tutoreari itzuliko dio oharra. Beranduago, tutoreak jantokiko arduradunari bueltatuko dio. Egoeraren arabera, jantokiko arduradunak aita edo amari deituko dio jakinaren gainean egoteko.

Bizikidetzaren kontrako hiru jokaera (3 falta arin) ematen direnean edo zuzenean jokaera larria izan denean, aurrekoan bezala gurasoei oharra bidaliko zaie eta telefonoz deituko zaie gertaturiko jokaera larria aipatuz. Ohar hau aurrekoan bezala gurasoak sinatuta bueltatu beharko da eta tutoreari emango zaio. Azken honek jantokiko arduradunari itzuliko die. Aldi berean, gertakari larria emanik, zuzendaria, tutorea eta jantokiko arduradunak bilduko dira hartu behar den neurria erabakitzeko. Neurria erabakita, jantokiko arduradunek etxera deituko edota oharra bidaliko dute erabakia azalduz.

Neurri hau ikastetxeko jardueren hobekuntza eta garapenerako balio duten lanak egitea izan daiteke, jantokiko atsedendian garbitzen geldituaz (ikus gehigarria) eta abar.

Gertaeraren arabera ere, bertze neurri batzuk hartu ahal izanen dira (ikus gehigarria), hala nola, gehienez ere 5 egunez ikastetxeko jantokiko eskubidea galtzea, edo osagarriak diren jardueretan parte hartzeko eskubidea galtzea.

BESTE PAUSO BATZUK:

Familia edo ikasleak kexak, dudak, iradokizunak, edo bestelakoak dituztenean jantokiko arduradunekin kontaktuan jarriko dira, telefonoz, korreoz edota zuzenean. Aldi berean jantokiko monitoreek esateko zerbait badute hauek ere prozesu bera jarraituko dute.

VII. TITULUA: BIZIKIDETZAREN AURKAKO PORTAERAK

Larritasunaren arabera, bizikidetzaren kontrako jokaerak eta bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak izanen dira.

1. BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK

1. TIPIFIKAZIOA

47/2010 Foru Dekretuan aipatzen direnak:

1. Ikasgelako arautegia ez betetzea
2. Portaera disruptiboak eta lan falta ikasgelan

b.1) Eskola orduan zehar ez ikastea edo eta ikaskideek ikasteko duten eskubidea eta betebeharra eragozten ahal dituen edozein portaera erakustea

b.2) Ikaslearen lan falta etengabea etxean zein ikasgelan, oro har jarrera pasiboa izatea (irteera, tailerrak, ...).

b.3) Behin baino gehiagotan eskolara beharrezko materialik gabe etortzea

3. Justifikatu gabeko puntualtasun falta errepikakorrak eta hutsegiteak

4. Errespeturik eza

d.1) Ikastetxeko ikasleei edo langileei errespeturik gabe hitz egin eta erantzutea

d.2) Nahita edo arduragabekeriak, ikastetxeko esparruan dauden materialak, ikaskideen gauzak edo instalakuntzak arin hondatzea.

d.3) Irain eta ofentsa ez larriak eta eraso fisiko ez larriak.

5. Ikastetxeko jarduera arrunta arinki hausten duen edozein jarrera justifikatu gabea.

2. ZUZENTZEKO NEURRIAK

Hezkuntza-arloko neurriak ezartzeko prozedura

1. Negatiboak paratzea, irakasle bakoitzak duen irakasle koadernoko kontrol orrian. Bertan, kopurua eta falta motak zehaztuak egonen dira. Negatibo horiek kalifikazioetan islatuko dira. Behin eta berriz, bizikidetza kontrako jarrerak emanen balira, irakasgaia suspenditzea lekarke.
2. Faltak arina suertatzen denean, irakasleak "bizikidetzaren kontrako orria" beteko du; originala ikasleari emanen dio gurasoei sina dezaten eta kopia bat ikasketa buruari emanen dio, non faltak eta ondorioa agertuko diren.
3. Klasetik kanporatzea. Kanporaketa bat gertatzen denean, ikaslea Zaintza Gelara joanen da kanporatu duen irakasleak bidalitako lanarekin. Irakasle horrek "bizikidetza kontrako orria"n azalduko du kanporaketaren zergatia, eta tutoreari eman. Tutoreak orri hori ikasleari emanen dio, eta honek gurasoei emanen die hauek sina dezaten. Behin sinatu ondoren, irakasleak itzuliko dio orria tutoreari. Tutoreak ikasketa buruari kopia bat emango dio. Egoeraren arabera irakasleak aita edo amari deituko dio jakinarenean gainean egoteko.

2. BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKABIDEAK

1. TIPIFIKAZIOA

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokoak:

1. Hezkuntza komunitateko beste partaideen aurkako diziplina falta, irain eta ofentsa larriak.
2. Hezkuntza komunitateko beste partaideen aurkako eraso fisiko larriak.
3. Dokumentu akademikoen faltsutzea edo ebastea.
4. Ikastetxeko egoitzetan, materialean edo dokumentuetan kalte larriak sortzea, gaiztakeriaz, bai eta Hezkuntza komunitateko beste partaideen gauzetan ere.
5. Ikastetxeko jarduera arrunta larriki hausten duen edozein jarrera justifikatu gabea.
6. Hezkuntza komunitateko partaideen osasunaren edo osotasun pertsonalaren aurkako ekintza arras kaltegarriak egitera zirikatzeta.

2. ZUZENTZEKO NEURRIAK

1. Jokaera larriaren lekukoa izan den irakasleak edo zaintzaileak “bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaera” orria beteko du, eta tutoreari eman. Tutoreak orri hori ikasleari emanen dio, eta honek gurasoei emanen die hauek sina dezaten. Behin sinatu ondoren, ikasleak itzuliko dio orria tutoreari. Tutoreak ikasketa buruari kopia bat emango dio. Egoeraren arabera, tutoreak aita edo amari deituko dio jakinaren gainean egoteko.
2. Bizikidetzaren kontrako hiru jokaera ematen direnean edo jokaera larria izan denean, zuzendaria, etapako ikasketa-burua, orientatzailea eta tutorea bilduko dira neurria erabakitzeko.
3. Neurri hau ikastetxeko jardueren hobekuntza eta garapenerako balio duten lanak egitea izan daiteke. Lan hauek atsedendaldietan edo klase orduetatik kanpo eginen dira, beharrezkoa deritzon denboran zehar.
4. Bertze neurri batzuk hartu ahal dira, hara nola, gehienez ere 15 egunez ikastetxera etortzeko eskubidearen etetea, edo eskolaz kanpoko edo osagarriak diren jardueretan parte hartzeko eskubidea galtzea.
5. Kalte larriak edo oso larriak gertatzen diren kasuetan 47/2010 Foru dekretuan agertzen den protokoloa aplikatuko da.

IX. ANEXOAK

1. **ANEXO**A: HH eta LH

GELA BARNEKO ARAUAK

1. Gelan sartzera koan bakoitzak bere materiala prestatu behar du eta bere tokian eseri.
2. Besteek hitz egiten dutenean isilik egon behar da.
3. Ez da barre egin behar besteetaz edo besteek esandakoaz.
4. Eskua altxatu behar da hitza eskatzeko eta isilik egon behar da hitza eman arte.
5. Bakarkako lanean gaudenean isilik egon behar da.
6. Eskolan euskaraz hitz egiten dugu.
7. Baimenik gabe ezin da besteen materiala hartu.
8. Gure materiala eta besteena errespetatu behar da, baita irakaslearena ere.
9. Ikaskideak errespetatu behar dira.
10. Gelan eserita egon behar da.
11. Ez da inor salatu behar.
12. Norberak bere materiala ekarri behar du.
13. Irakasleak esan arte ezin da lekutik altxatu eta gelatik atera nahiz eta txirrinak jo.
14. Gelatik atera baino lehen dena txukun-txukun utzi behar da. Eguneko azken ordua bada, aulkia mahai gainean eta ingurua ahalik eta txukunen.
15. Klase orduetatik kanpo ezin da gelatan ibili.

2. **ANEXO**A: HEZKUNTZA ARLOKO NEURRIAK

(Adibideak)

FALTA	NEURRIAK	IRAUPENA
Jantokian, 3 falta arin eginek	-Jantokiko arduradunek erabakitako beste mahai batean bazkaltzea -Errekreoan mahaiak jartzea. -Bazkal ondotik beharrezkoak diren garbitzeko lanak egitea	-Aste bat gehienez. -Aste bat gehienez. -Aste bat gehienez.
Hezkuntza komunitateko beste partaideen aurkako diziplina falta, irain eta ofentsa larriak	- Eskolako jantoki-zerbitzua erabiltzeko eskubidea galtzea, bertan gertatu baldin bada	-Gehienez ere 5 otordu. -Irteera bat.

Bizikidetza Arautegitik aterata

	-Jarduera osagarri batera joateko eskubidea galtzea (irteera eta abar).	
Ikastetxeko egoitzetan, materialean edo dokumentuetan kalte larriak sortzea, gaiztakeriaz, bai eta Hezkuntza komunitateko beste partaideen gauzetan ere	Eragindako kalteak konpontzea, ordezkatuz edo diruz ordainduz	
Ikaslearen lan falta etengabea etxean zein ikasgelan, oro har jarrera pasiboa izatea (irteera, tailerrak, ...).	Jarduera osagarrietan edota eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea galtzea	